


BEREZKO IKASKETETAN IZENA EMATEKO PROZESUA

I- IZENA EMATEKO ESKARIA. IKASLEAK

1- Ikasleek webgune bidez eman beharko dute izena, UPV/EHUren webgunean: Graduondoko Ikasketak, Berezko Titulazioak, Izena emateko prozedura.



Lehenengo eta behin, egin nahi diren ikasketen mota aukeratu behar da:

- Graduondoko berezko tituluak (Aditua, espezializazioa edo masterra)
- Gradu aurreko berezko tituluak, barne izanik
 - a) Gradu berezko unibertsitate tituluak (Berezko gradua)
 - b) Unibertsitate Hedakuntzako Diploma (Graduko titulu ofizialei lotutako berezko titulua).
 - c) Unibertsitate Hedakuntzako Diploma

Lehenengo urrats hau egin eta gero, ondoko botoiari sakatu behar zaio:

Pantaila honetan atal guztiak bete behar dira.

Nazionalitate espainiarra duten ikasleek NANA aukeratu behar dute beti.

Nazionalitate espainiarra **ez** duten ikasleek pasaporteia aukeratu beharko dute, nahiz eta Espainiako egoitza-txartela izan.

Zenbakiz jaso behar dira N.A.N. zenbakia edo (nazionalitate ez espainiarraren kasuan) pasaportearena eta jaioteguna.

Sakatu honako botoi honi: **Hurrengora**

UPV/EHUren datu basean leudekeen ikasle guztien kasuan (unibertsitate

tituludunak, unibertsitate ikasketak hasi eta gero bertan behera utzi dituztenak, unibertsitate sartzeko probak egin dituzten ikasleak), sistemak dauzkan beren datu guztiak agertuko ditu:

The screenshot shows a web browser window with the URL <https://gestion-servicios.ehu.es/pls/entrad...>. The page title is "Eskatzailearen datu pertsona...". The form is titled "Datu pertsonalak" and "Helbidea".

Datu pertsonalak

Agiri mota: Pasaporte
Nortasun-agiri zk.: XX0000
Jaioteguna: 1991/01/01
Izena:
1. abizena:
2. abizena:
Sexua:
Herrialdea:
Nazionalitatea:
Probintzia:
Udalerrria:
Harremanetarako tel.:
2. telefonoa:
Helb.ed.:

Helbidea

Kalea/plaza...:
Izena: Uretamendi
Ataria: 14 Solairua: 5 Letra: B Eskalera:
Herrialdea:
PK: 48002
Probintzia:
Udalerrria:

Ikasleak agertu zaizkion daturen bat (helbidea, telefonoa..) aldatu nahi badu, harremanetan jarri beharko du UPV/EHUren berezko tituluen bulegoarekin. berezkoikasketak.ikasleak@ehu.eus

Oharra: bankuko kontu-zenbaki bat agertzen bada, EZ da aktibo egongo ikasketa horien tasak ordaintzeko, eta ezingo dira helbideratu

Sakatu botoi honi: **Hurrengora**

Ikaslea ez balego UPV/EHUren datu basean, eskatuko zaizkion datu guztiak bete beharko ditu.

The screenshot shows the same web browser window and form as above. The form is titled "Datu pertsonalak" and "Helbidea".

Datu pertsonalak

Agiri mota: Pasaporte
Nortasun-agiri zk.: XX0000
Jaioteguna: 1991/01/01
Izena:
1. abizena:
2. abizena:
Sexua:
Herrialdea:
Nazionalitatea:
Probintzia:
Udalerrria:
Harremanetarako tel.:
2. telefonoa:
Helb.ed.:

Helbidea

Kalea/plaza...:
Izena:
Ataria: Solairua: Letra: Eskalera:
Herrialdea:
PK:
Probintzia:
Udalerrria:

Sartuko dituen datuek bat etorri beharko dute nahitaez N.A.N. edo pasaportearen agertzen direnekin.

Informazio guztia behin sartu ondoren, botoi honi sakatu beharko zaio:

Hurrengora




Pantaila honetan sarbiderako ikasketen mota aukeratu behar da.

Lotutako graduko titulazioen kasuan, ikasleek Gradu lotuetarako matrikulatutako ikasketak markatu beharko dute sarbiderako.



Sakatu honako botoi honi:


Hurrengora



Ikasleak agertuko balitz UPV/EHUREn datu basean, norberak egindako ikasketak agertuko dira: lizentziatura, diplomatura, gradu, hautaprobak, 25 urtetatik gorako sarbidea, salbu eta 1988 urtea baino lehenagoko unibertsitate tituludunak izan ezik. Azken hauen kasuan, bete beharko dira datu akademikoak.


UPV/EHUREn datu basean agertu ezean, sartu egin beharko dira datu akademikoak.

Ikasleak nahiko balu, sarbiderako ikasketaz gain, beste ikasketaren bat gehitu (aukeratutakoaren mota berekoa: lizentziatura, diplomatura), ondoko botoi hau baliatu beharko du: **Aldi berean egin nahi den ikasketa**




Prozesu hau amaituta, sakatu botoiari: **Hurrengora**

Ikaslea UPV/EHUkoa bada eta zorrik balu UPV/EHUrekin, honako mezu hau agertuko da:



Egoera honetan ezinezkoa da izena emateko prozesuarekin jarraitzea. Harremanetan jarri beharko da berezko tituluen atalarekin eta atal honek egoeraren berri eskatuko dio graduko ikasketen zerbitzuari. UPV/EHUrekiko zorrik izanez gero, ezin izango da izena eman, zorra kitatzen ez den bitartean.

UPV/EHUko ikasleak ikasketen azken ikastaroko irakasgairen baten kalifikazioaren zain baleude, izena eman ahal izango dute "Ikasketak UPV/EHUK kalifikatzeko zain" atala markatuta.



Markatu beharreko aukera egin ondoren, **Hurrengora** botoiari sakatu.

Ikasleak dituen ikasketak agertuko dira eta izena emateko prozesuarekin segitu ahal izango du.



Atzerriko titulaziorik izanez gero, baldintza honi dagokion laukia markatu eta honako pantaila hau agertuko da:

2017/18 ikasturterako onarpen-eskaera EHUko ikastegiak

Graduondoko berezko titulak

Pasaporte: XX0000 Eskatzailea: bbbb ccc, aaa

Sartzeko aukera: **Atzeritar tituluduna**

Titulazioa:

Jaukitze-data: Nota:

Atzerriko unibertsitatea:

Atzerriko beste unibertsitate batzuk:

Informazio orokorra **Hurrengora**

Norberaren titulazioa eta tituluaren emate data sartu behar dira, nota borondatezko datua den bitartean.

Jatorriko unibertsitatea sartzeraoan, bitariko aukera dago:

- Atzerriko unibertsitateari dagokion laukian klikatu: bertan GAUR-eko datu baseetan diren unibertsitateen menu zabalgarri bat agertzen da.
- Norberaren unibertsitatea egon ezean, unibertsitatearen izena eskuz sartu beharko da eta gero unibertsitateari dagokion herrialdea ere bai.

2017/18 ikasturterako onarpen-eskaera EHUko ikastegiak

Graduondoko berezko titulak

Pasaporte: XX0000 Eskatzailea: bbbb ccc, aaa

Sartzeko aukera: **Atzeritar tituluduna**

Titulazioa:

Jaukitze-data: Nota:

Atzerriko unibertsitatea:

Atzerriko beste unibertsitate batzuk: Universidad de Paris III

Herrialdea:

Informazio orokorra **Hurrengora**

Egin klik **Hurrengora** botoian.

Unibertsitatera sartzeko ikasketak (unibertsitateko espezialista eta berezko graduetako titulazioetara) dituztela egiaztatuko luketen pertsona guztxi ondoko pantaila agertuko zaie:

2017/18 ikasturterako onarpen- eskaera

Graduondoko berezko tituluak

NAN: 11111111H Eskatzaillea: BBBB CCCC, AAAA

Sartzeko aukera: **Batzilergoa sarrera- probarekin**

2016an Unibertsitatera Sartzeko Proba (USP) beste unibertsitate batean egina baduzu, fase orokorrean lortutako emaitzen berri eman behar diguzu, aukeratu dituzun UPV/EHUko graduatarako onarpen nota kalkulatu ahal izateko.

UBI/EE/Batzilergoko ikasketak

Babilergo mota: [v]

Bigarren hezikuntzako ikastetxea: [v]

Expedienteko ikasturtea: [v] Deialdia: [v] Sarea: [v]

Nota: [v] Ohorezko matrícula:

Proba-urtea: [v] Proba-deialdia: [v] Bidea: [v] Probako nota: [v]

Unibertsitatea: [v] Behin betiko nota: [v]

Zati espezifiko ariketakren datuak

Urtea: [v]	Deialdia: [v]	Unibertsitatea: [v]	Ariketa: [v]	Nota: [v]
Urtea: [v]	Deialdia: [v]	Unibertsitatea: [v]	Ariketa: [v]	Nota: [v]
Urtea: [v]	Deialdia: [v]	Unibertsitatea: [v]	Ariketa: [v]	Nota: [v]
Urtea: [v]	Deialdia: [v]	Unibertsitatea: [v]	Ariketa: [v]	Nota: [v]
Urtea: [v]	Deialdia: [v]	Unibertsitatea: [v]	Ariketa: [v]	Nota: [v]
Urtea: [v]	Deialdia: [v]	Unibertsitatea: [v]	Ariketa: [v]	Nota: [v]
Urtea: [v]	Deialdia: [v]	Unibertsitatea: [v]	Ariketa: [v]	Nota: [v]

Informazio orokorra Hurrengora

Behin eremu guztxiak bete eta gero, sakatu **Hurrengora** botoiari. Orain egin nahi den berezko titulua aukeratu behar da. Aukeratu nahi den berezko titulua agertuko ez balitz, harremanetan jarri beharko da berezko tituluaren bulegoarekin.

2017/18 ikasturterako izen-ematea

1ª Titulazioa: 2017/2021- Unibertsitateko Espezialista, Esparentzia, Irizkuntzako Bostmahai Lan Egitea (on line)

2ª Titulazioa: [v]

3ª Titulazioa: [v]

4ª Titulazioa: [v]

5ª Titulazioa: [v]


6ª Titulazioa: [v]

7ª Titulazioa: [v]

8ª Titulazioa: [v]

Informazio orokorra Hurrengora

Ikasleak titulazio batean baino gehiagotan eman ahal du izena.



Prozesua amaituta, izena ematearen gordekina agertuko zaio, ikasketa antolatzen duen sail, ikastegi edo institutuaren datuekin.


Izena emateko prozesu hau amaitu ondoren, ikasleak erabakiko balu berezko beste titulu batean izena ematea, harremanetan jarri beharko du berezko tituluen bulegoarekin.

Arazorik gertatuko balitz eta ikasleak webgune bidez lortuko ez balu behar bezala amaitu, www.ehu.es gure webgunean, graduondoko ikasketen atalean den inprimakia (berezko titulazioak, izena emateko prozedura, izena emateko eskaera ibilbideari jarraiki) behera kargatuko ahal da.




II- IZENA EMATEKO ESKAEREN KONTSULTA

Edozein momentutan kontsulta dezakete ikasketarik antolatzen duten sail edo institutuek izena eman duten ikasleen zerrenda, berezko titulazioak, Sailsa, Zerrendak, Onarpen eskaeren zerrenda ibilbidea eginda.



Ikasketa mota aukeratu behar da:

- Graduurrekoak
- Graduondokoa, espezialista
- Graduondokoa, masterra.



Akademi ikasturtea adierazi behar da, ikastegiaren eremua ez da bete behar eta titulazioaren eremuan kasuan kasuko berezko titulua jarri behar da




balioen zerrenda baliatuta.


Zerrenda honetan izena eman duten ikasleak agertzen dira eta hauen harremanetarako telefonoa eta posta elektronikorako helbidea.

Egoera	1. telefonoa	2. telefonoa	Helb.el.
Erabaki gabe	00964780193461	009647733	alsadeercom@yahoo.com
Erabaki gabe	645713759		arkaitz.a.m@gmail.com
Erabaki gabe	944242433	652710302	servicios@hori-hori.eus
Erabaki gabe	688802747		olatz.larinaga@gmail.com
Erabaki gabe	615006910		amaia.ugarteburu@bizkaia.eus
Erabaki gabe	620717797	943654707	ainhozara@gmail.com

III- ONARPENA

Ikasle guztiek izena eman eta gero, sail, ikastegi edo institutu antolatzaileak GAUR sistemaren barruan onartu, ukatu edo itxaron zerrendan utzi beharko ditu egin diren eskariak Honetarako, sailtako berezko tituluen profilarren barruan, "Onarpena – Doktoregoko / B. Tituluetako / Atxikietako onarpena" dioen aukera hautatu behar da.







Titulu motaren eremuan zeinek nahi duena jarri behar dugu eta Proposatuz motaren eremuan lehengoari dagokion ikastegia, saila edo institutua. Ondoren, Titulazioa eremura jo behar da eta balioen zerrendaren barruan berezko titulazioa aukeratu.


Datu guztiak bete eta gero, NAN eremura jo behar da eta izena emateko eskari guztiak agertuko dira.

Lehenengo eta behin, sailak eskaria onartu edo ukatu beharko luke.

Honetarako, Egoera eremuan kokatu eta  balioen zerrendaren barruan honako aukera hauetariko bat hautatu:

- Onartua
- Kanpoan utzia
- Itxaron zerrenda

Izena ematearen egoera aldatzen den bakoitzean, gorde edo grabatu behar da diskete itxurako ikonoari sakatuta: 



Izena ematea onartu ondoren, harremanetan jarri beharko dute ikasleekin, titulazioa egiteko interesa egiazta dezaten. Hala egiaztatuko duten pertsona guztiak "Plaza erreserbatze" moduan jarriko dira egoeraren eremuan.

Arrazoiren batengatik, prozesuan atzera egin nahi bada, hau da, aurreinskripzioan plaza erreserbatu eta gero, hasierako egoerara itzuli nahi bada, prozesua alderantziz egin beharko litzateke, hau da, aurreinskripzioan plaza erreserbatu ondoren, onartu egoerara itzuliko da, GORDE eta onartu egoeratik erabaki gabe egoerara pasatu.

IV- ERABILTZAILE ETA PASAHITZAREN SORRERA

Onartu egoeratik "plaza erreserbatze" egoerara aldatzen da ikaslez ikasle eta egoera aldatzen den bakoitzean grabatu egin behar da diskete itxurako

ikonoari sakatuta: 

Orduan, sistemak PDF formatuko dokumentua egingo du GAUR sistemarako erabiltzailerik eta pasahitzari buruzko informazioarekin, berori beharko duelarik ikasleak gero matrikula egingo badu. Dokumentu hau eman beharko diete titulazio ezberdinetako arduradunek interesatuari, zeini berea.

V- ATZERRIKO TITULUA DAUKATEN IKASLEAK

Atzerriko titulaziorik duten ikasle guztiei, sistemak dokumentu bat emanen die, atzerriko titulazioa izanik, berezko titulazioetara sartzeko eskaria egin ahal izateko. Dokumentu hau ikasleak sinatuko du eta berezko titulazioko batzorde akademikoak egin beharreko txostena egingo.

Txosten hau, eskatzen den gainerako dokumentazioarekin batera, berezko tituluen bulegora bidaliko da, doktoregoko azpibatzerdeak gerora onartuko badu, beti ere matrikula egiteko epea baino lehen. Izan ere, tramite honen ezean, ikasleak ezin izango du matrikula egin.

Interesatuak edozein momentutan kontsulta dezake bere izen ematearen egoera UPV/EHUren webgunean.

